

TRIKITIXA

Norberto Oiarbide, Fernando Goenaga eta Paulo Urretabizkaiairen omenez

Trikitilarien Eguna ospatuko Ordizian datorren igandean

M. A.

Euskal Herriko Trikitilarien Eguna ospatuko da Ordizian igandean, Idiazabalgo Norberto Oiarbide, Ordiziko Fernando Goenaga eta Beasaingo Paulo Urretabizkaiairen omenez. Meza Nagusian, kalejiretan, lagunarteko bazkarian eta arratsaldeko jaialdian ehundaka trikitilarik hartuko dute parte Goiherriko hiru soinu-jole zahar horien omenez.

Goizeko 9,30etan bilduko dira Euskal Herriko trikitilariak Ordiziko plazan, Udaletxeak eskainitako ongi-etorria eta salda beroa hartzeko, kalez-kale abiatu aurretik. 11etan elizara inguratuko dira, trikitixa lagun, meza entzuteko. Eguerdian, kale eta tabernetara zabalduko dira, soinu, pandero eta irrintzi. Ordubetan lagunarteko bazkarian elkartuko dira Urdaneta ikastetxean. Arratsaldeko 5,30etan, berriz, pelotalekuan omenduei eta trikitizale guztiei jaialdia eskainiko zaie.

Fernando Goenagak 82 urte ondo gordeak dauzka. Aurtengo gripe txarra ere menderaturik du. Bartzelonako barrio Txinon erosi zuen soinua soldaduska garaian. Geroztik dozena bat izan ditu eta gaurregun ere etxean eta lagunartean jotzen du. «Hilean behin egiten dugu afaria eta nere soinuarekin joaten naiz» aitortu dio EGU-NARI. «soinu jotzen bost xentimo bere bizitza guztian irabazi ez dituen» Fernandok, beti zaharren etxerako eta debaldeko festarako astindu izan bait du bere trikitixa.

Paulo Urretabizkaia orain 66 urte jaio zen Abaltzisketan eta 17 urterekin Itsasondora morroi iritsi zenean hasi zen soinua jotzen. «Oraindik ere badaukagu ikasten premia ederra» esan digu, Itsasondoko Urki bailarako soinu-joleak eta Santeske, Olentzero eta eske guztietako trikitilariak. «Etxean hazienda gehiegi genuen soinu jotzen ikasteko eta morroi hartu nin-



Norberto Oiarbide, Fernando Goenaga eta Paulo Urretabizkaia

dutenean ere ez ninduten horretarako hartu» esan digu txolarteetan, bere gisa ikasi zuen trikitilariak.

Norberto Oiarbidek ere 66 urte ditu eta bere gisa ikasi bazuen ere aukera haundiagoa izan du bere tabernan. Hiruetan Idiazabalgo «Benta Txiki»koa dugu, beraz, erromerietan gehien ibili dena, beste biak lagunarteko festajartzaile izan bait dira, batez ere.

Norberto Oiarbide, «Benta-Txiki» trikitilariak EGUNARI aitortu dionez «urdui samar» daude egun, horretarako. «Lehen lasai asko ibiltzen ginen baina orain erraz larritzen gara, urteek ez bait dute barkatzen». Hala ere, lagunak gogoratu direlako «pozik eta ilusio haundiz» daude egun horretarako.

Norberto Oiarbideri ez zaizkio trikitilari rock-zale horiek gustatzen. Martin eta Laja ditu gogozkoak. Baina gazteetan oso onak badaudela aitortzen du. Lesakako Apeztegia neskak, Jauregi, Pagadi eta abar aipatu dizkigu izen batzuk eskatu dizkiogunean.

«Guk ez genuen gazte hauen aukerarik izan, guk geure gisa ikasi behar izan genuen zertxobait. Gu ez gara horien pareko sekulan izan. Orain berriz eskuak ere gogorturik dauzkagu soinua airoso jotzeko». Hala ere, Norberto Oiarbidek ez du hautsak estalia bere soinua. Noiznahi astintzen du tabernako jendea alaitzeko.

Trikitixak berebiziko aurrerapena egin duela eta trikitilarien lana ere erosotu egin dela ohartzen da Norberto. «Gure garaian ez zen berriketa, goizean hasi eta hurrengo goiza arte jo behar izaten zen soinua. Orain bezala 3 bat ordu jo eta libratu izan bagina geu ere gehiago ibiliko ginen batetik bestera».

Orain ere, ordea, ez du dena aldeko trikitilariak bere ustez, «dantzariak falta bait dira. Inor dantzan ez baldin badabil tristea da trikitilariaren jarduna». Eta ilusio haundiz trikitixa ikasten ari direnei askotan esaten die, «ari zarete ikasten, baina zertarako? Dantza suel-

toan egiten ez badute jai duzue. Elkartu zaitzete eta sor ezazue dantzarako zaitetasuna eta gogoia ere».

Trikitixa indartu nahian hasi ziren antolatzen Trikitilarien Eguna, orain 18 urte. Sakabi eta Egañazpiren omenez Usurbilen. Geroztik, Azeitian, Arraten, Zarautzen, Azkoitian, Asteasun, Urretxun, Igeldon, Zumarragan, Elgoibarren, Zestoan, eta Tolosan, herriko edo bailarako soinu-joleen ohoretan. Azkoitian hiru aldiz egin da, Maltzeta anaiak, Zendoia anaiak eta Laja eta Iturbide omenduz. Usurbilen, berriz, bi aldiz, Zialtzeta eta Arriestarazuk hala aukeratu zuten.

Aurten Goiherri egingo da lehen aldiz. Ehundaka trikitilariaren irrintziak entzungo dira Ordizian igandean, Goenaga, Urretabizkaia eta Oiarbideri esker ona agertuz. Taberna, kale, eliza, soziedade eta barretan alaitasunik eta umorerik jarriko du gure soinu-txikiak egun horretan.